

Eskerrik asko bihotz-bihotzez!

2006an hasi zen dena. Umetatik amestu nuena egia bihurtu, eta ordura arte afizio izandakoa ofizio izatera pasatu zen. Bizitzako ametsetako bat gauzatuta, konforme nengoen eta neurekiko esaten nuen “egunen batean seme-alabarik baldin badut, harro kontatuko diot txirrindulari profesional izatera iritsi nintzela”.

Ordutik, hamaika urte pasa dira. Hamaika denboraldi eta hamaika poz zein atsekabe. Izan ere, ibilbide luze honetan gozatzeko uneak asko izan badira ere, une zailak ere sarri tartekatu dira, zoritxarrez. Ezer larririk ez, baina, egiari zor, behin eta berriro oztopoak gainditu eta aurrera egiteko borrokatu behar izanak arrastoa utzi dit.

Nahiz eta bidea erraza izan ez, kendu didana baino askoz gehiago eman dit txirrindularitzak. Besteak beste, bizitzeko modu bat, betirako barneratu ditudan balore on asko, pertsona ahaztezin ugari eta baita munduko txoko eder asko ikusteko aukera ere. Horrez gain, lasterketarik onenetan egoteko aukera izan dut eta banakaren bat irabaztekoa ere bai. Gainera, txirrindulari baten ametsik ederrenean bezala, Parisko Camps Elyseesen jendetza handiaren txalo artean hunkitzeko zortea ere izan dut.

Baina, azkenaldi hau ez da oso erraza izan. Askok izan zarete nire etorkizunaz galdetu eta bueltan erantzunik jaso ez duzuenak, eta zuei barkamena eskatu nahiko nizueke, baina espero dut ulertuko duzuela. Mailarik gorenari eusteko nire aldetik nuen guztia eman dut, baina arazoren bat edo beste tarteko, zalantza ugari sortu zaizkit. Hori dela eta, denbora tarte bat hartu eta luze hausnartu ondoren, bizitzan beste etapa bat hasteko erabakia hartu dut. Kirol profesionala alde batera utzi eta beste bide barri batzuk irekitzeko garaia iritsi dela erabaki dut. kirolaz beste modu batera gozatzekoa, alegia. Txirrindulari eta zaletu izateari inoiz ez diodala utziko uste baitut.

Eskerrik asko, umetatik hasi eta orain arte lagundu didazuenei: txirrindularitza elkarte, zuzendari, mekanikari, masaje emale, ... Pausoz pauso aurrera egiten lagundu didazuen guztiei. Entrenamendu zein lasterketetan ezinbesteko laguntza eman didazuen taldekide eta *grupetako* lagunei; lan honen eguneroko gogortasuna gozamen bilakatu baitidazue. Bizikletatik jaitsita, eguneroko bizimoduan alboan izan zaituztedan guztiei; etxekoei, zuek ikusi nauzuelako, bai gozatzen, baina baita sufritzen ere. Nola ahaztu betiko lagunak eta “Amets Txurruka Lagunartie” osatzen duzuenak. Eta zelan ez, mila esker etxeko bi neskei, Lexuri eta Nahia txikiari; oinarritzko bi euskarri.

Bukatzeko, bereziki eskerrak eman nahi dizkiet zaleei, klase handirik gabeko txirrindularia izan arren, handienen pareko sentiarazi nauzuelako. Ez daukat esker ona besterik zuengandik jaso dudana maitasuna eskertzeko. Garaipenek poza ematen dute, baina estimatua sentitzea ere garaipen ederra da. Pribilegio hori izan dut eta aurrerantzean ere sentipen horrekin erlaxionatu nahiko nuke nire kirol ibilbidea.

Oso polita izan da, eskerrik asko bihotz-bihotzez!

No hay mayor victoria que sentirse querido

Todo empezó en 2006. El sueño que perseguía desde niño se convirtió en realidad y lo que era una afición pasó a ser un oficio. Viendo realizado uno de los sueños de mi vida, me dije a mi mismo: "Si algún día tengo hijos, les contaré lo orgulloso que llegué ser ciclista profesional".

Desde entonces, han pasado 11 años. El número once en euskara significa abundancia y la verdad es que han sido muchas las alegrías vividas, pero también las dificultades superadas. Entre ellas varias lesiones, cierto que ninguna grave, pero el cumulo de ellas junto con diferentes adversidades han hecho mella.

Aunque el camino no haya sido fácil, considero que el ciclismo me ha aportado mas de lo que yo le he podido dar, entre todas ellas una manera de vivir, unos valores bien interiorizados que me servirán para el resto de la vida. He conocido a personas inolvidables, así como muchos lugares del mundo que, si no hubiera sido por este deporte, no los hubiera conocido. Profesionalmente, he tenido la suerte de correr muchas de las carreras más importantes, también de saborear el triunfo en alguna que otra. Incluso, como si se tratase del sueño más dulce que podría tener un ciclista, de emocionarme al verme en los Campos Elíseos.

Aun así, he de confesar que este último periodo no ha sido del todo fácil. Habéis sido muchos los que me habéis preguntado sobre mi futuro y no habéis obtenido respuesta, es por ello que os quiero pedir perdón, pero al mismo tiempo, espero que me lleguéis a comprender. He seguido luchando y trabajando como lo he hecho siempre para estar al máximo nivel, pero el campo profesional exige lo máximo y algunos problemas físicos me han creado todavía más dudas de las que tenía. Ello me ha llevado a tomarme un tiempo y tras un periodo de reflexión os anuncié que mi carrera profesional ha llegado a su fin y en adelante empezaré una nueva etapa en la vida. Nunca dejaré de sentirme ciclista ni aficionado a él, con lo cual seguiré disfrutando de este deporte, pero sin la exigencia del nivel competitivo en el profesionalismo.

Me gustaría agradecer a todos los que me habéis ayudado a crecer deportivamente desde que empecé siendo un crío: el club de ciclismo con todos sus respectivos integrantes, directores, masajistas, mecánicos... A los compañeros de equipo y amigos de la *grupeta* por convertir el sufrimiento en placer. Qué decir del apoyo incondicional de los de casa, que siempre os he tenido ahí, en momentos de disfrute tanto en los que ha tocado sufrir, en el aspecto deportivo, pero sobre todo en la vida diaria. A los amigos de toda la vida y los integrantes de "Amets Txurruka Lagunartie". Y como no, a Lexuri y nuestra pequeña Nahia, dos pilares fundamentales en mi vida.

Para finalizar, querría agradecer especialmente a todos los aficionados a este deporte. Aun siendo un ciclista sin mucha clase, me habéis hecho sentirme a la altura de los más grandes, no tengo más que palabras de agradecimiento para describir el cariño que he recibido por vuestra parte. Me habéis enseñado que las victorias son dulces pero que no hay mayor victoria que el sentirse querido. Este sentimiento me ha acompañado durante toda mi carrera deportiva, y es el que me gustaría recordar cuando eche la mirada atrás.

¡Ha sido muy bonito, os agradezco de todo corazón!